


# Landa-garapena Errenteriako baserrialdian



**Mikel Zendoia**

Behemendi LGEko teknikaria

**B**ehemendi Donostialdea-Bidasoako Landa-Garapenerako Elkartek, Errenteriako Udalaren laguntzarekin, herriko landa-gunearen garapenaren alde lanean jarraitzen du. Landa-eremu zabala duen herria izanik, eskaintzen diren zerbitzuak eta burutu diren ekimenak ezberdinak eta anitzak izan dira.

Behemendi Elkartea 1993. urtean sortu zela kontutan izanik, bideratu diren proiektuak puntualak edo jarraituak izan daitezke. Ez dugu ahaztu behar landa-eremuan hirigunean normaltzat ematen diren zerbitzuen eskaintza ez dela beti ematen. Askotan ere, zerbitzua abiatu ondoren bertan behera geratzea ere gertatu izan da. Horrela, 2009. urteko maiatzetik gaur egun arte landutako ekimenak ondo-rengoak izan dira.

- *Landa-eremuko zerbitzu orokorrak:* Arlo honetan nekazaritza zerbitzu zehatzak eta landa-eremuko biztanleentzako zerbitzu orokorrak aurki ditzakegu. Lehenengoan artean, belarra mozteko zerbitzua, belar bolak egiteko zerbitzua (661 belar bola egin dira), simaurra zabaltzeko zerbitzua eta artoa erein eta biltzeko zerbitzua eskaini dira (4,5 hektarea). Bigarrenen artean berriz, ondorengo aipatu behar ditugu: nekazaritza guneko zabor bilketa zerbitzua (13 edukiontzietan 142.130 kilo bildu dira), nekazaritza guneko betelan eta kontrolik gabeko isurketen kontrol eta zaintza zerbitzua (4 foku aurkitu dira) eta Errenteriako Udalarenak diren landa-eremuko herribideen sasisa kentzea eta garbiketa zerbitzua (garbiketak ekainean eta urrian egiten dira).



- *Aiako Harria Parke Naturala:* Behemendi Elkartek Natura 2000 Sarean dagoen eremu honen erabilera publikoaren kudeaketan laguntzen du. 2010 urteko otsailean Behemendi Elkarteen garbiketa brigadak hainbat lan burutu ditu Barrengoloia-Listorreta eta Parke Naturaleko sailetan. Egindako lanak: oinezkoen ibilbideen garbiketa, aisialdirako guneen garbiketa eta mantenua eta landare inbaditzaileen mozketak eta ezabapena.
- *Gizarte zerbitzuak landa eremuan:* 2008. urtean hasiera emandako "Bidez bidez" zerbitzuak indarrean jarraitzen du. Honen bitartez, Errenteriako baserrietan bizi den adineko jendeari eta mugikortasun arazoak dituztenei herri gunera joateko garraio zerbitzua eskaintzen zaie. Zerbitzu honek eskaera bidez funtzionatzen du: bezeroak behar duenean gidariari deitzen

dio eta zerbitzuaren ordua adosten dute. Zerbitzuak 15 erabiltzaile ditu eta erabiltzaileen %50ak egunero erabiltzen dute zerbitzua.

- *Ekolapiko Proiektua Errenteriako Uztargi haurreskolan*: Errenteriako Udalak, Behe-mendik eta Biolur Nekazaritza Ekologikoko Elkarteak bultzatzen dute proiektu hau. Honen bitartez, elikagai ekologikoez osaturiko menuak eskainiko zaizkie bertako haurrei Errenteriako Udalak kudeaturiko Uztargi haurreskolan.

Proiektu honek hiru lan ildo garrantzitsu ditu oinarritzat: elikadura osasuntsu eta orekatu baten oinarriak finkatzea, ingurumenean eragitea nekazaritza ekologikotik eratorritako elikagaien bidez eta Errenteriako eta Oarsoaldeko landa-garapenean eragitea nekazari ekologikoen sare baten osaketa bultzatuz.

- *Errenteriako baserriko esnea saltzen duen esne makina*: 2009ko abenduaren 19an Errenteriako Basosoro baserriko esne pasteurizatua saltzeko makina jarri zen Xabier Olaskoaga Plazan.

